

2002/12/5eko **prentsa-oharra****EZKONTZEN ESTATISTIKA (EZKE)****2002ko bigarren hiruhilekoa**

2002KO BIGARREN HIRUHILEKOAN, EZKONTZA GEHIAGO IZAN ZIREN 2001EKO ALDI BEREAN BAINO

2002ko apirilean, maiatzean eta ekainean 3.077 ezkontza kontatu ziren.

2002ko apirilean, maiatzean eta ekainean 3.077 ezkontza kontatu ziren Euskal AEn, aurreko urteko hiruhileko berean baino %6,4 gehiago, Eustaten datuen arabera. Lurralde Historikoka, bizkaitarrek 1.536 ezkontza ospatu zituzten, gipuzkoarrek 992 eta arabarrek 426. Euskal AEz kanpo bizi diren egoiliarren kasuan, ezkontzak 123 izan ziren.

Ezkontza zibilak gehitu egin dira

Aurreko hiruhilekoaren aldean hiruhileko honetan ezkontza gehiago izan dira maiatzean eta ekainean izaten direlako ezkontzen gehitzeak. Beste alde batetik, tarte honetako ezkontzen %33,3 ezkontza zibilak izan ziren, 2001eko aldi berean baino portzentaia handiagoa. Era berean, proportzio hori 2002ko aurreneko hiru hilabeteetan baino nahiko txikiagoa da, aldi hartako ezkontzen erdia baino gehiago zibilak izan ziren.

Bigarren ezkontzak gutxitu egin dira

2002ko bigarren hiruhileko horretako 3.077 ezkontzetan, bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten 2.971 gizonezko eta 3.029 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 2.770 senarrentzat (% 93,2), lehenengo ezkontza izan zen; eta 21 alargun eta 180 dibortziatu, aldiz, berriro ezkondu ziren. Lehen ezkontza zuten emakumeen ehunekoak gizonezkoena baino handixeagoa izan zen: aurretik ezkongabeak zirenak 2.868 izan ziren (% 94,7); alargunak, 7; eta dibortziatuak, 154.


Ezkontzak ezkontideek eztei-egunean zuten adinaren arabera banatuz gero, senarren artean, %61,6k 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, ehuneko horrek

%43,6 hartu zuen. Kopuru biak aurreko urteko hiruhileko berekoak baino handiagoak dira.

	2002ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2002ko 1. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2001eko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EZKONTZAK	3.077		968		2.893	
Kanonikoak	2.052	66,7	404	41,7	2.010	69,5
Zibilak	1025	33,3	564	58,3	883	30,5
SENARGIAK	2.971		927		2.789	
Ezkongabea	2.770	93,2	840	90,6	2.640	94,7
Alarguna	21	0,7	7	0,8	15	0,5
Dibortziatua	180	6,1	80	8,6	134	4,8
EMAZTEGAIK	3.029		957		2.859	
Ezkongabea	2.868	94,7	861	90,0	2.721	95,2
Alarguna	7	0,2	9	0,9	10	0,3
Dibortziatua	154	5,1	87	9,1	128	4,5

Iturria: EUSTAT

Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oinarria 100= b.b.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Teresa Remirez de Ganza Zabalo Tel.: +34-945 017 534 Faxa: +34-945 017 501 Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es